



Usurbilgo Udala

Data: 2023/04/27

2023KO APIRILAREN 27AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Beñat Larrañaga Urdanpilleta
Lur Etxeberria Gurrutxaga
Joxe Mari Iribar Zapirain
Ainhoa Arrozpide Landa
Luken Arkarazo Silva
Oskar Santamaria Pikabea
Itziar Basterrika Unanue
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Carlos Pérez Fraisoli
Francisco José (Patxi) Suárez Pérez

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Kontu-hartzailea: Gorka Lizarraga Erro.

Ez da bertaratu: Andoni Atxega San Sebastian.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2023ko apirilaren 27an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da batzarburua.

1.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2023KO MARTXOAREN 27TIK APIRILAREN 21ERA (2023/310-2023/399).

Alkatetzak 2023ko martxoaren 27tik apirilaren 21era bitartean (2023/310-2023/399) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/04/27

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

2.- 2023KO LEHENENGO HIRUHILABETEKO AURREKONTUAREN EXEKUZIOAREN BERRI EMATEA.

Kontu-hartzaileak esan du orain arte ez dela ohiturarik egon datu hauek ekartzeko, datu esanguratsuak izan daitezkeela dio eta horregatik ekartzen dituela, nahiz eta datu hauek batzordean ere eman daitezkeen.

Datuak direnak direla dio eta interpretazioak norberak egin beharko lituzkeela. Norbaitek galderaren bat baldin badu erantzungo duela esan du.

Jarraian, taulan jasotzen diren datuak aipatu ditu.

Alkateak zehaztu du datu hauek martxoaren 31koak direla eta aurrekontua behin betikoz otsailaren hasieran onartu zela, beraz, datu hauek otsaila eta martxoari dagozkiela.

Batzarkideei 2023ko lehenengo hiruhilabeteko aurrekontuaren exekuzioaren berri eman zaie eta hauek jakinaren gainean geratu dira.

3.- 2023KO LEHENENGO HIRUHILABETEKO ORDAINKETEN BATAZBESTEKO EPEAREN BERRI EMATEA.

Alkateak adierazi du ondorioztatu daitekeela udal honek likidezia arazorik ez duela eta ondorioz ordainketak egunean eramaten direla.

Kontu-hartzaileak azaldu du hainbat administrazioek ordainketetarako zituzten zailtasunak ikusita, 2012ko estabilizazio legean hartutako neurri bat izan zela bi hiruhilekoz jarraian 30 egunetik gorako ordainketa epea gainditzen badu administrazio batek, zenbait neurri hartuko direla.

Txosteneko zenbaki guzti horien atzean hainbat ekuazio daudela dio, eta azken finean ondorioztatu daitekeena dela lehen hiruhilekoan ordainketen batzbesteko epea 11,38 egunekoa dela.

Josune Urkolak esan du datu guzti horietan lehenengo taulan agertzen direla legez kanpoko epean ordainduta daudenak, guztira 139.000 euro, eta hori zergatik gertatzen den galdetu du.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/04/27

Kontu-hartzaileak erantzun dio legez betebeharra orokorra dela. Hor agertzen diren horiek ze kasu diren banan banan begiratu beharko liratekeela esan du. Banatu duten orriarekin batera excel zerrenda bat badagoela esan du non faktura guztiak agertzen diren eta horko zehaztasunak ikusi beharko lituzketela esan du.

Ainhoa Arrozpidek esan du ulertzen duela 30 eguneko epe hori faktura guztien batazbestekoa izango dela, eta epemuga horretatik pasatzen bada hartuko direla neurriak.

Kontu-hartzaileak adierazi du Ainhoak esan duen bezala faktura guztien batazbestekoa egiten dela eta momentu honetan epe horretatik urruti daudela. Udal honek ez duela likidezia arazorik gaineratu du.

Batzarkideei 2023ko lehenengo hiruhilabeteko ordainketen batazbesteko epearen berri eman zaie eta hauek jakinaren gainean geratu dira.

4.- 2023KO 4. KREDITU ALDAKETAREN BERRI EMATEA.

Alkateak adierazi du kreditu aldaketa honek jatorria aurreko plenoan duela. Jarraitu du esanez azken aldian izan diren materialeen garestitzeek prezio errebisio bat eragin dutela Txirikordako obran eta prezio errebisio hori egiteko azkenengoz indarrean dauden adierazleak hartzen direla kontuan. Baina txostena eginda zegoenean eta plenorako deialdia egin zen egun berean adierazle berriak argitaratu zirela esan du, eta horrek txostena berriz egitea eragin zuela. Hori horrela, prezio berrikuspenetik datorrenari aurre egin ahal izateko kreditu aldaketa berri bat egin behar izan dela adierazi du.

Batzarkideei 2023ko 4. kreditu aldaketaren berri eman zaie eta hauek jakinaren gainean geratu dira.

5.- 2023KO MAIATZAREN 28AN IZANGO DIREN HAUTESKUNDEETARAKO MAHAIKIDEEN ZOZKETA.

INEko Ida_Celec aplikazioa erabiliz, 2023ko maiatzaren 28an izango diren hauteskundeetarako mahaikideen zozketa egin da.

6.- GALDERA ETA ESKAERAK.

Ez dago.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/04/27

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:25ean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, idazkariak izenpetuz, alkatearen oniritziarekin.